



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-01-17**

VIURTEA 1.338.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Galatasekin duen aferan herritar askok babesa eman diote Udalari

ADUNA Galatasen heriotz mehatxuak jaso dituzten herritarrei babesa azaldu die Udalak ezohiko bilkuran

BERRESPENA Mozio bat onartu zuten aho batez; bertan 1.8 unitateko hirigintza proiektuarekin bat egin dute 7



N. URBIZU

UNAI GARMENDIA PILOTARI PROFESIONALA

«Amezketan ikasi dut pilotari buruz dakidan ia guztia, azken zortzi urte hauetan»

BALIARRAIN 15 urte zituenetik Zazpi-Isturri pilota eskolan aritu eta gero, bi urtetako kontratua sinatu du Frontis pilota enpresarekin 5



Maixel Arrieta eta Jon Mujika, hitzarmena sinatzen. A. IMAZ

Amasa-Villabonako Udalak eta HITZAK 2011ra arte luzatu dute elkarlana

TOLOSALDEA Atzo sinatu zuten hitzarmen berria Villabonako udaletxean eginiko ekitaldian 6

Bizkarreko arazoak hizpide, Michel Marmier medikuaren eskutik

ALBIZTUR Gaur, 18:00etan Kultur Etxean, mediku kiropraktikoak hitzaldia eskainiko du 4

249 aparkaleku berri egingo dituzte Alondegian, errotazio bidez

TOLOSA Udaletik azaldu dutenez, «herritarren beharrak hartu nahi izan dituzte kontuan» 2

249 aparkaleku egingo dituzte Alondegian, errotazio sistema erabiliz

Hirigintza » Aparkalekuak egiterako orduan herritarren beharrak hartu nahi dituztela kontuan azaldu dute.

IÑIGO TERRADILLOS

Alondigian egingo dituzten aparkalekuen berri eman zuen atzo Angel Yañez (PP) aparkalekuen batzordeburuak. Gerontologiko berriaren azpialdean 3 solairu eraikiko dituzte aparkalekuak, eta bertan, lehenengo solairuan 249 plaza errotazio sistemakoak izango dira, eta bigarren eta hirugarren solairukoak bertako bizilagunentzat.

«Proiektua herritarren beharretara egokitzea» dela bere asmoa azaldu zuen Yañezek, «ez baita berdina aparkalekuak irekiak izatea ala itxiak, edo handiagoak ala txikiagoak izatea». Horretarako, herritarren beharrak zein diren jakiteko, otsaileko eta martxoak azken bi asteetan bere bulegoan egoteko prest dagoela esan du, «gertutik ezagutu ahal izateko herritarrek zer behar eta nahi duten». Bildutako datu horiek kontuan hartuko dituztelagaitu zuen Yañezek.



Angel Yañez, Iñigo Arcauz Gipuzkoako PPre batzarkidea eta Iñigo Manrique Ordiziako PPre zinegotzia. I.TERRADILLOS

Jendearen gustukoak

Alondigako aparkalekuen proiektuan, lehenengo solairua errotazio sistemakoak izango da Rondilla kaleko luzapeneko aparkalekuen moduan. Aparkaleku hauen behin behineko ezaugarriak ere zehaztu dituzte: plaza bakoitzak 2,5 x 5 metro izango ditu, eta denera 249 izango dira. Bigarren solairuan 116 plaza egingo dituzte, eta hirugarrenean, berriz, 120, baina hauek bertako bizilagunentzat izango dira. Dena den, herritarrek nolako

aparkalekuak nahi dituzten ikusi nahi dutela zehaztu zuen Yañezek, «ez baitugu jendearen gustukoak ez diren aparkalekuak eraiki nahi».

Aparkalekuek «harrera ona»

Errotazio sistemako aparkalekuak egitearen arrazoia aurreko proiektuek, Rondilla kaleko luzapeneko katea esaterako, izan duten «harrera ona» izan dela azaldu zuen. Halaber, orain arte aparkalekuen gaian eginiko lana ere gogoratu

zuen; Trianguloko aparkalekuek, 7 urtez plaza erdiak saldu gabe egon zirela aipatu zuen, eta hauek moldatu ostean guztiak saldu zirela. Plaza Berrian ere «bertako bizilagunentzat aparkalekuak egitea oso arrakastatsua izan zen, eta gainera prezioan eta kalitatean baldintza onekoak egin genituen». Amarotz auzoko bizilagunekin ere bilerak egiten ari direla adierazi zuen, «han bizilagunentzat aparkalekuak egiteko, baina oraindik ez dugu erabat zehaztu».

AHTren aurka azaltzera deitu du LABek

Gizartea » Batzarra, manifestazioa eta elkarretaratzea egingo dituzte bihar, goizean, Itsasondon eta Ordizian.

I. TERRADILLOS

Tolosaldeko eta Goierriko LABek «inoiz Euskal Herrian eraiki den azpiegitura antiekológico eta antisozialena den AHT kostatzen ahala kostatzen zuten» direla azaldu du, eta hori dela eta, mobilizatzea deitu ditu Tolosaldeko eta Goierriko langileak. Hala, bihar, 11:30ean batzarra egingo dute Tolosaldeko eta Goierriko LABeko delegatuek Itsasondoko frontoian; 12:30ean, manifestazioa deitu dute Itsasondotik Ordiziara, eta 13:00etan elkarretaratzea egingo dute Ordiziako udaletxeke plazan.

«Garraioaren egoera kaltetu»

LABek atzo eginiko prentsurrekoan adierazi zuenez, «behar sozialetarako ez omen dago aurrekontu nahikorik, baina inor gutxi ez berbitzua emango dion AHTn 9.000 milioi euro xahutzeak badago; gainera, zeharo defizitarioak

dira AHTk». Bestalde, Euskal Herrian garraioaren egoera «oso txarra» dela, baina AHTk «konpondu beharrean kaltetu» egingo duela adierazi zuten, «ez baitu xedetzat mugikortasuna beste era batean berrantolatzea, helburua, nola edo hala bidaia kopuruak areagotze da, lurralde egitura zentralizatuz eta desorekatuz».

Halaber, AHT ez dela Euskal Herria mesedetzeko egitasmoa diote, «Espainiak eta Frantziak diseinatu eta bultzatutakoa baizik». LABen iritziz, «errealitateak erakusten du ez dela bertako bizilagunen beharrak mesedetzeko azpiegitura, joan-etorrien %97 inguru eskualde barrukoak baitira».

«Egitasmoa ez da ekològikoa»

Bestalde, proiektuak ekologiari mesede egingo diola ari direla sal tzan salatu dute, izan ere, LABen ustez, «121 tunel eta 113 bidezubi eraikitzea, 68 milioi m³-tik gora lur mugitzea, 2.500 hektarea okupatzea eta 64 zabortege sortzea eragingo duen egitasmoa ez da ekològikoa».

Hala, herritarren beharrak nahiz herri-kontsultak kontuan ez hartu izana salatu dute, eta hori



LAB sindikatuko ordezkariak, atzo eskainitako prentsurrekoan. I. TERRADILLOS

» BIHAR

■ **11:30.** Batzarra egingo dute Tolosaldeko eta Goierriko LABeko delegatuen artean Itsasondoko frontoian.
■ **12:30.** Manifestazioa burutuko dute Itsasondon hasi eta Ordiziara iritsi arte.
■ **13:00.** Elkarretaratzea egingo dute Ordiziako udaletxeke plazan.

dela eta LABek mobilizatzea deitu ditu herritarrek. Bihar izango dira mobilizazioak; hasteko, Tolosaldeko eta Goierriko LABeko delegatuek batzarra egingo dute Itsasondoko frontoian 11:30ean. Ondoren, manifestazioa eta elkarretaratzea egingo dituzte, eta ekimen hauetan herritarrek parte hartzea animatu nahi dituzte.

Laburrak

Harizpe elkartearen urteko batzarra larunbatean

GIZARTEA » Datorren larunbatean, hilaren 19an, urteko batzar berezia egingo dute Harizpe jubilatuen elkarteak. 17:30ean izango da lehendabiziko deialdia eta 18:00etan, berriz, bigarrena.

Tolosa CFren urteko batzarra izango da gaur

GIZARTEA » Tolosa CFren urteko batzarra izango da gaur, Kultur Etxean. Lehenengo deialdia 19:30ean izango da, eta bigarrena, 20:00etan.

'Que tan lejos' filma gaur, zine-forumean

ZINEMA » Ohiko zine-forum saioa izango da gaur Leidor aretoan. Hain zuzen ere, Tania Hermida zuzendariaren *Que tan lejos* filma izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean. Bestalde, asteburuari dagokionez, *Encantada* filma ikusteko aukera izango dute gaztetxoek larunbatean eta igandean, eta larunbatean, igandean eta astelehenean, *Deseo peligrado* filma ere emango dute, Leidor aretoan.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Umorea eta musika klasikoa bat eginik bihar, Pagagnini ikuskizunean

Tolosa » Yllana eta Ara Malikianen emanaldiaz gozatu ahal izango dute bihar Leidorra 20:30ean gerturatzen direnek.

ERREDAKZIOA

Yllana eta eta lau biolin-jotzaileen arteko ezkontzatik sortu da momentoko ikuskizun hunkigarri-neretako bat. Ara Malikian buru dutela, inorrek galdu behar ez lukeen musika-jolas bat sortu dute. Ikuskizun berezi honetaz gozatzeko aukera izango da bihar, Leidor antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da, eta sarrearak salgai daude leihatilan eta Kultur Etxean.

Kontzertu bat eta antzezlanaz uztartzen dira ikuskizun honetan. Bertan parte hartzen duten musikariek urte askotako ibilbidea dute aurretik. Horien artean dira: Ara Malikian, Eduardo Ortega, Thomas Potiron eta Gartxot.

Pagagnini familia osoari zuzendutako ikuskizuna da. Kontzertu



Pagagnini izeneko ikuskizuna taularatuko dute bihar Yllanakoe Ara Mailikianekin batera. HITZA

umoretsua, zentzugabea eta harmoniatsua da. Keinuak eta musika uztartzen dira taula gainean. Aurreakaririk gabeko erreztaldia da. Illanak emanaldi honetan musika klasiko pieza esanguratsuenetara hurbildu nahi zituen umeak. Beraz, emanaldiko egitaraua zehaztua dago, baina ikuskizuna aurrera doan bitartean zenbait ezusteko gertatzen dira eskenatikian.

Konposatzaile ezagunen lanak

Harizko laukote batek Pablo Sarasate, Manuel de Falla, Wolfgang Amadeus Mozart eta Luigi Boccheriniren konposizioak jotzen ditu besteak beste. Baina, bekaizkeriak, inbidi, maitasunak eta grinak beraien sarrera egiten dute, eta hauekin batera, genero herrikoienak, gertuko umorearekin ukitzen dituzte. Memento horien ostean, nahasmenduz amaitzen da kontzertua, umore kutsuko agerraldiak utzia utziz.

Gainera, ikuskizun umoretsua eta hezitzaile honetan ez dago ezer inprobisatua. Dena ongi ikasita eta aztertuta dago. Baita argi joko ere. Urte bat daramate emanaldi hau antzokiz antzoki taularatuta eta detan ere arrakasta izugarria lortu dute, ikusleak eserlekuetatik altxaraziz.

Lehenbailehen gestora bat izendatzeko asmoa du Aldundiak

Elduain » Bittor Muñagorri funtziotan zegoen alkateak abenduan kargua utzi ondoren, aginterik gabe dago orain Udala.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi zuen atzo, «ahal bezain azkar gestora bat osatzen saiatuko dela» egungo egoera konpontzeko eta honek, Elduaingo Udalan agindu dezan. Izan ere, maiatzeko hauteskunde ostean, Bittor Muñagorri (EAJ-PNV) aurreko legegaldiko alkateak jarraitu behar izan zuen, baina funtziotan. Abenduan, berriaz, uko egin zion larguari.

Eneko Goia Foru Aldundiko bozeramaileak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo goizean Donostian. Elduaingo egoeraz hitz egiteko. Bertako herritarrek gestora osatzeko zenbait herritarrekin osatutako zerrenda aurkeztu dute. Goiak ziurtatu du, «Aldundiak jaso duen zientzonen zerrendak balizko gestora bat osa dezakeela, eta zerrenda hori Hauteskunde Batzordeari igorri diola, honek beharrezkoak diren benetakotzak bidaltzeko eta bide batez, behar bezala izendatuak izateko».

Aldundikoek adierazitakoaren arabera, beraien helburua da, «El-



Bittor Muñagorri egon da orain arte alkate karguan, funtziotan. A. IMAZ

duaingo egoerari irtenbidea lehenbailehen aurkitzea». Gainera, urte dute, eman beharreko pausuak eman dituztela, eta hemendik aurrerako ez dagoela beraien eskuetan. Baina hurrengo pausoak gauzatzen diren bezain pronto gestora bat osatuko dutela argitu dute, «ahal bezain azkar Elduaingo egoera normalizatzen».

Egoera honen aurrekariak

Egun bizi duten hutsunea maiatzeko hauteskunde onorio da. Hauetara, EAE-ANV eta PP alderdiak aurkeztu ziren, baina lehen-

dabizikoa legez kanpo utzi zuten. Ondorioz, PPK boto bat behar zuen alkatetza eskuratzeko, eta lortu zuen. Baina zerrendak aldatzen saiatu ziren, eta hau epezkano egin zuten, ezin izan zuten agintea hartu. Orduetik aurrera Bittor Muñagorri jarraitu zuen alkate bezala, funtziotan. Baina abenduan kargua uztea erabaki zuen. Ondorioz, orduetik hona ez dago inor agintean. Gestora bat izendatuz gero, zulo hori beteko litzateke, eta talde honek alkate-presidente bat aukeratu ahal izango luke.

Guraso topaketetan izena emateko aukera

Gizartea » Teoria eta egunerokotasuna txertatzea dute xede, beti ere gurasoek dituzten kezkek aintzat hartuz.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuek «eguneroko bizitzan sortzen diren kezka eta zailtasunei aurre egiteko», beste behin ere, Guraso Topaketak antolatu ditu. Honekin, teoria eta egunerokotasuna txertatu nahi dituzte, «beti parte hartzen duten aita eta amen interesak eta kezkek aintzat hartuta».

Topaketa hauek 0 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta daude. Izenez ematea Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetan egin daiteke hilaren 30a baino lehen. Edota, 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta. Orduetara ondorengo da: 10:00etatik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera (ostegunetan izan ezik). Jardunaldiak hiru hilabetetan zehar egingo dira, otsailetik, apirilera. Interesatuak 60 euro ordaindu beharko dute matrrikula. Saiok euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera dago.

Izema emetako garaian kontu korronteko zenbakia eskatuko

dute, ordainketa helbideratzeko. Dena den, asintentzia %80a baino gehiagokoa denean 50 euro itzuliko zaizkie guraso horiei. Plazak mugatuak dira eta Tolosan biziren gurasoek lehentasuna izango dute.

Eskolen orduetara 15:00etatik 16:45era bitartekoa da. Otsailen, 7an, 17an, 21ean eta 28an izango dira, martsoan berriz, 6an eta 13an. Azkenik, apirilaren 3an, 10ean, 17an eta 24an.

Zertarako guraso eskola?

Familia bakoitzak bere izaera eta funtzionatzeko era du. Esate baterako, familiak sailkatzeko, irizpide teoriko batzuk erabiltzen dira. Hori dela eta, estilo autoritario, inkontsekuentea, permisiboa eta demokratikoa daudela esaten da. Estilo horiek familien erradiografia orokor bat izateko baliozkoak izan daitezke, baina askotan, etiketatzeko eta bata ona eta bestea txarra dela esateko besterik ez dute balio izaten, eta hori ez da antolatzaileren asmoa.

Arlo teorikoa kontuan hartuta, gauza asko esan ditzake, baina aita edo ama diren aldetik, beraien seme-alabekin afektuzko erlazioa, komunikazioa, errespetua eta alkarren artean bizitzeko arau eta muga batzuk eraiki nahi dituzte.

Gaur 18:00etan Albizturko Kultur Etxean Michel Marmier mediku kiropraktikoaren hitzaldia izango da, eta orokorrean bizkarreko arazoez ariko da, eta jendearen zalantzei erantzuteko prest.

Bizkarra, bizitzaren zuhaitza

NEREA URBIZU

Gaur egungo bizitzeko era omen da gure osasunaren etsairik handienetakoa. Horrela, edo antzeko, mintzatuko da Michel Marmier mediku kiropraktikoa gaur Albizturren.

«Bizkarra bizitzaren zuhaitza» delako, zaindu beharreko da gorputz atal hau. Arazo arruntenak buruko minak, eskuetako, esku-muturretako eta bizkarreko mina dira. «Bizkarreko minen epidemia dago gaur egun». Argi dagoena da, «gero eta jende gehiagok duela bizkarrak eraginako minak edo gaixotasunak, eta gero eta gazteagoak gainera», dio Marmierrek.

Eta honetan, gaur egungo bizimoduak ez du gehiagi laguntzen: «Ordenadorea, telebistaren aurrean eserita, autoan gidatzen, trenetan, egoneko lan mota asko, kirol falta... Hauek guztiek parte hartzen dute arazoetan». Orokorrean, «ez da kirol nahikoa egiten». Honen ondorioetako bat, «bizkarra ez dakigula maneiatzen» da, eta bestea, ez dakigula esertzen.

Michel Marmier medikua gomendioak ematen ariko da Albizturten gaur, 18:00etan, eta jendearen kezka eta galderak erantzuten saiatuko da Kultur Etxean.

Noizean behin luzatzea

Dena dela, arazo hauek ekidin daitzek pausu batzuk jarraituz gero, eta egunerokoan errespetatuz gero.

Eserita denbora asko egiten dutenek lanean hasi aurretik luzatzea



Bizkarreko mina gero eta jende gehiagorengan du eragina. HITZA

gomendatzen du medikuak. Ornoak luzatuz berotu egiten dira eta malgutasun bat lortzen da honekin. Hau noizean behin egitea ona dela dio Marmierrek.

Normalean botikak hartzen ditugu minari aurre egiteko, baina epe motzerako soluzioa da

Lo ongi egitea «oso garrantzitsua da»: jarrerarik txarrena buruz behera lo egitea da, «burua biratu egiten behar baita amasa hartzeko eta hori ez da ona bizkarrezurren arteteriak daude, eta odola ez da ondo pasatzen. Beraz, dena kate bat da».

«Alboraka edota buruz gora lo

ten dute. Guztien gainetik, ibiltzea «oso ona da, bizkarrezurreko giharrik indartzeko asko balio du».

Korrika egitea ere ona da, baina gauza asko hartu behar dira kontuan, esaterako, oinetakoak, zapalzen dugun lurra eta gogoan izanik ez dela bizkarreko gaixotasunik izan behar aurretik.

Jendearengan kezka

«Jendea lehenago baino kezkatuago dago gai honekin eta irtenbidea bilatzen dute». Jendeak normalean botikak hartzen ditu minari aurre egiteko baina hau etorkizun hurbileko soluzioa da. «Demagun itogin bat dugula eta pote bat jartzen dugula ur hori jasotzeko: hori ez da konpontzea, arazoak jarraitzen duelako».

Beraz, ariketa, elikadura, edota ur nahikoa edatea dira eraginkorrenak. «Dena dela, miaketa zehatz batzuk egiteko ohitura dugu, bularreko minbizi edo prostatarrena adibidez, baina ez bizkarrarena, eta besteak bezain garrantzitsuz hartzen ditugu». Nerbio sistemaren eragiten duela kontuan izan behar da; beraz, arnasketan edo liserketan ere eragina du.

«Oso garrantzitsua da prebentzio bat, detekzio bat, bizitzaren garbitasuna eta sedentarismoaren aurkako borrokaren arteko konbinazioaren bila joatea».

Regina Otaolak Gregorio Ordoñez Saria 2007 datorren astean jasoko du

Lizartza » Lizartzako alkateak «bere adorea eta duintasunarengatik» jasoko du Donostiako hotel batean.

ERREDAKZIOA

Regina Otaola Lizartzako alkateak Gregorio Ordoñez 2007 saria jasoko du hilaren 25ean. «Bere adorea eta duintasunarengatik» eta «askatasunak defendatzeko izan duen erabaki zehatzarengatik» jasoko du, Fundazioak esan bezala.

Gregorio Ordoñez Fundazioak adierazi du Donostiako hotel batean izango dela sari banaketa. Bertara Europar Talde Popularreko lehendakariordea den Jaime Mayor Oreja, Ordoñezaren alarguna eta Carmen Iglesias ere joango dira.

«Otaolaren merituen artean balorez beterik orbanari zuzendu izana» azpimarratu dute: «Orban hauek euskal herritar guztien bizitzeko eskubidea ukatzen dute».

PPren zinegotziari omenaldia

Sari banaketan omenaldi bat egin-goto diete Euskal Autonomi Erkidegoko PPren zinegotzi guztiei, «haien eguneroko konpromiso ausarta eta kuraia morala eta politika askatasunaren alde, justiziarren alde eta demokraziaren alde» lan egin dutelako.

S Soka motzean

«Etxean jokatzeko dugunean, jende asko etortzen da»

INAIAK OTAÑO

Transportes Lakunza taldeko entrenatzailea

IMANOL GARCIA

Iñaki Otaño (Zizurkil, 1985) areto futboleko Transportes Lakunza taldeko billabonatarren entrenatzailea da.

Noiztik entrenatzaile bezala?

Iaz hasi nintzen ordezkaritza-entrenatzaile bezala eta aurtun ere hor jarraitzen dugu. Otsailean entrenatzaile titulua ateratzen hasiko naiz.

Zer moduz doa denboraldia?

Pattal hasi ginen. Jendea lesioekin egon da eta oportetaren ere. Orain denak batera gaudela ilusio gehiagorekin gaude.

Jarraitzaileen aldetik, zer moduz?

Ez dauka futbolak adinako bultzadarik, baina etxean jokatzeko dugunean jende dextente etortzen da partida ikustera.

Eta Espainiako Ligan areto futboleko lehena zein doan bada-ki jendeak?

Ez, hori ez.

Zuk zeuk areto futbol edo futbola duzu gustukoago?

Futbola.

Futboleko eta areto futboleko gustuko taldea?

Reala eta Osasuna, futboleko. MRA Gutarra, aretoekoan.

Futboleko eta areto futboleko jokalaririk bat?

Realean, Aranburu, eta Osasunaren, Patxi Puñal. Aretokoan, Daniel, Interviu Fadesa taldekoa.



I. GARCIA

hitzaren eskutik

G PUNTUA
IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia 6 €

Deitu: 902-82 02 01



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

E Elkarrizketa

UNAI GARMENDIA ▶ Pilotari profesionala

«Pilotaz dakidan ia guztia Amezketan ikasi dut, zortzi urte hauetan»

Pilota » Frontis pilota enpresa nafarrarekin bi urtetarako kontratoa sinatu du: 15 urte zituenetik Amezketako Zazpi-Isturri pilota eskolako pilotaria izan da.

NEREA URBIZU

Unai Garmendiak («erdi legorretarra eta erdi baliarraindarra»), berak dioten bezala, 1984) Amezketan debutatu zuen joan den igandean eta 22-15 irabazi zuen bere bikotea Aritz Lasarekin batera, Bengoetxea VII-Zabalaren aurka. Frontis pilota enpresarekin ariko da bi urtez. Zazpi-Isturri Amezketako pilota eskolan 15 urte zituenetik izan da. Baliarraingo pilotaleku txikian ere jolastu izan da, eta bere bigarren herria dela esan daiteke: han jarri du HITZarekin hitzordua.

15 urtetatik Amezketako pilota eskolan. Zer zor diozu honi?

Legorretako pilota eskolan hasi ginen. Jarraitzeko asmoa nuen baina eskola bertan behera geratu zen. Xalton Zabala lagun zena osaba, eta kadete nintzela Amezketan hasi nintzen. Oso gustura egon naiz. Zazpi-Isturri pilota aldetik dena zor diot. Pilotaz dakidan ia guztia bertan ikasi nuen. Xaltonekin, Aritzekin, Saralegirekin beste pixka bat... Ondo zaindu naute, ez daukat kexatzeko arrazoirik.

Oztopoen gainetik ibilita orain profesionala zara.

Analitikan arazo batzuk izan ni-



N. URBIZU

tuen duela urte batzuk, ikaragarriko arazo bezala aurkeztu zidaten medikuek, gaixotasun larri bat balitz bezala. Urtebetean ez zuten ezer ez konpondu, eta gaur egun arte, ondo. Betiko balore batzuk egoten dira aldatuta, baina, bestela ondo nago.

Frontisekin bi urtetarako kontratua egin duzu.

Orain merkaturatu dagoen bezala ikusita profesionala izatera pasatzea zaila da. Azken txapelketetan emaitza onak lortu ditut eta fitxatzearena horren ondorio izango dela pentsatzen dut. 50 partida egingo ditut gutxienez urtebetean, hala adierazten du kontratua. Be-

raz, gutxiago jokatuko ditudala uste dut. Urrutiago jokatuko dudala ziur, Errioxa (Espainia) aldean eta baita Aragoian (Espainia) ere. Orain ezagutuko ditut leku horiek.

Partida asko baina ohituta zaude.

Afizionatutan gehiago jokatzen ditugu... Adibidez, lau final jokatutako Eguberrietan. Horieta hiru irabazi ditut, Elite Txapelketa Onsalo aresoarrarekin eta Renobalearen kontra; Gipuzkoako Klubaren arteko irabazi Elurbe lizartzararekin batera; Zaldibarko irabazi Onsaloaren kontra, eta galdutakoa, berriz, DV Txapelketa, Renobalearekin jokatutakoa.

Zein da zure datorren partida?

Aste honetan buruz buruko Errioxako irekiko partida (Open), Antxiaren aurka. Uste dut erraz galduko dudala, izan ere normalean ez naiz buruz burukoan ibiltzen.

Zuk ere binaka jokatzea nahiago?

Nik bai, besteek ez dakit. Banakakoa gogorragoa da, gehiago sufritu behar da.

Debutatzean oso ondo aritu zine-ladiote. Nola joan zen?

Hala badiote... Hasieran nahiko erraz dominatu genuen eta besteak hotz xamar hasi ziren. Erdialdean pare bat huts egin nituen, baina bestela nahiko ondo moldatu nintzen, gustura. Frontioan jende asko izan zen, Leitzatik batzuk ere

etorri ziren. Gainera, ia jende guztia gure alde azaldu zen.

Jendearen beroa nabaritzen da?

Bai. Egia esan ez dut horretan pentsatzen, baina hori antzematen da. Amezketan debutatzea erabaki zenuen. Zergatik?

Enpresak nahi zuen inguruan izatea, eta Amezketan erabaki nuen: bizi guztia hor ibili gara, kokka guztiak non dauden ere badakigu.

Halere, Amezketan jarraituko duzu entrenatzen?

Printzipioz Frontisekoek Labriten entrenatzen dute eguerditan eta nik ezin dudanez, Amezketan jarraituko dut. Asmoa dute arratsaldeetarako frontoi bat lortzeko, eta Altsasu aipatu zuten. Astean behin, behintzat, Amezketan jarraituko dut.

Zein pilotariren kontra jokatuko nahi duzu?

Nagore eta Arretxeren kontra...

Eta zeinen antza izan nahi zenuke?

Ez daukat idolorik. Ikasi, berriz, pilotari denengandik ikastea dago.

Nola ikusten duzu pilotaren egoera Tolosaldean eta Leitzaldean?

Ez dut gazteen maila gehiegi ezagutzen, baina nagusien nahiko indartsu ikusten dut. Orokorrean afizionatuen mailan azken urteetan jende asko igo da profesionale-tara eta hutsune handi xamarra gelditu dela iruditzen zait: maila ez da mantendu.

Urte asko pilotan: asko sakrifika-tu behar izan duzu?

Parranda aldetik dezentze zaindu naiz. Mementoan izorratzen du baina gero emaitzak nahi baldin badira hala egin behar da. Hori gero frontioan nabaritzen da.

Zer hobetu beharko zenuke?

Egoera fisikoa, hori behintzat bai.

Zer da hobekien egiten duzuna?

Zerbait esatekotan, eskubia esango nuke. Ezkerrarekin, ahal den guztia eraman.

Bigarren Mailako Binakakoa

Pilota » Saralegi eta Olazabal ariko dira, bihurtik hasita eta martxoaren 22ra arte; Barriola, berriz, EPEL Txapelketa ariko da.

ERREDAKZIOA

Bigarren Mailako Binakako Pilota Txapelketa bihar hasiko da (BBK txapelketa). Honetan, Olazabal aresoarra eta Saralegi amezketarra ariko dira.

Asegarcek eta Aspek lau bikote aurkeztuko dituzte txapelketarako. Saralegi Amorebietan ariko da bihar, final-laurdenetako ligan eta aurkariak Retegi II-Argote dira. Ateratzen diren lau onenak final-laurreko bakarretan lehiatuko dira

eta finalean jokatuko duten bikoteak erabakiko dira horrela. Asegarceko bikoteak honako hauek dira: Saralegi Izarekin ariko da eta (Asegarce) eta Olazabal, berriz, Arrutirekin (Aspe).

Olazabalen lehen partida Azpeitian izango da igandean Del Rey Merinorekin. Astero jokatuko dute eta otsailaren 29an bi pilotariak ariko dira aurrez aurre. Finala martxoaren 22an izango da.

Barriola EPEL Txapelketan

Bihar, berriz, Mungiako pilotalekuan 17:00etan EPEL-en eskuz binakako Txapelketako final laurdena jokatuko du Barriola leitzarrak Gonzalezekin batera. Olaizola I-Otxandorena da finalaurrena irabazi nahi duen beste bikotea.



Saralegi, iazko Lau T'erdikoan. N.U.

Laburrak

Zabor bilketa tasen erroldak onartu dituzte

IKAZTEGIETA » 2007. urteko bigarren seihilabeteko zabor bilketa tasari dagokion errolda onartu dute Ikaztegieta, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Epea martxoaren 5ean bukatzen da. Ordainketa, banketxetan nahiz Udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak martxoaren 5ean kobratuko dira.

Ana Jesus Ansorenaren zeramika piezak ikusgai

ALEGIA » Alegiko jubilatuen tabernan Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika piezak daude ikusgai nahiz salgai otsailera arte. Abenduan zehar ere izan zituen, baina beste gai batzuk jorratzen zuten orduan. Kasu honetan, Alegiari buruzkoak daude batzuk, eta beste batzuk naturarekin lotutakoak. Asteartetik igandera arte ikus daitezke.

ESKAIINTZAK
Sherpa
Mendiko eskietan likidazioa!
Santa Klara 12 • 20190 • Orreaga • TF / Fax: 943 916192 • sherpa@ej.uskalnet.net

Amasa-Villabonako Udalak eta HITZAK elkarlana 2011. urtera arte luzatu dute

Amasa-Villabona »

Maixabel Arrieta alkateak eta Jon Mujika HITZaren kudeatzaileak sinatu dute hitzarmena.

ASIERIMAZ

Amasa-Villabona eta Tolosa Herria Hedabideak E.M. ren arteko hitzarmen berria atzo sinatu zuten Maixabel Arrieta, Amasa-Villabonako alkateak, eta Jon Mujikak, Tolosa Herria Hedabideak kudeatzaileak.

Hitzarmen honen ondorioz, bi aldeek 2011. urterarte luzatu dute 2005. urtetik zetorren lankidetzako akordioa.

Bi aldeen adierazpena

Tolosa Herria Hedabideak E.M. k, Tolosaldeko eta Leitzaldeko informazioaz osatutako egunkaria argitaratzen du, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA izeneko eta www.tolosaldekohitza.info web-gunea ere egiten du.

Villabonako Udalak adierazi zuenez, «informazioa emateko helburua era zabal eta irekian bideratzen bada, alderdikieretan erori gabe, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria eta sor litezkeen beste proiektuak herri-rako eta eskualderako onuragarriak dira».

Bi aldeak ados agertu ziren hi-



Amasa-Villabonako alkatea, Maixabel Arrieta, eta Tolosa Herria Hedabideak-eko kudeatzailea, Jon Mujika. ASIERIMAZ

tzarmenaren «HITZA egunkaria euskararen erabilera areagotzeko lanean eta euskararen normalizazioa lortzeko bidean oso tresnagarriak dela eta izango dela» esaterakoan, «horren guztiaren onuradun Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek izango dira, beraz, Amasa-Villabonakoak barne» gaineratu zuten. Tolosako Herria Hedabideak bide horretatik lan egiteko konpromisoa «hartua duenez», Udalak erakunde horrekin, HITZAREkin, elkarlanean ari zeko borondatea adierazi zuten,

«udalbatzak hartutako akordioarekin bat eginez».

Hitzarmenaren baldintzak

Hamabi puntuko baldintza edo klausula zerrenda izenpetu zuten hitzarmenaren zati bezala Maixabel Arrieta eta Jon Mujikak.

Lehen puntuan, egunkaria «parte-hartzailea, alderdi politikoaren eraginpean izatea sahistuko duena eta inpartzialtasuna zainduko duena» izatea adostu zuten. «Pertsonaren errespetua zaindu eta norbaiti min eragin diezaioko-

en informaziorik ez ematea» ere zerrendan aipatzen da. Horretaz gain, «euskararen normalizazioa begira lanean jarraitzeko konpromisoa» bultzatzea aldarrikatu zuten baldintzetan.

Hitzarmenaren iraupenari dagokionez, «legealdi hau bukatu artekoa» izango dela adostu zuten, 2011. urte artekoa hain zuzen ere. Honen baitan, Villabonako Udalak biztanleko 3 euroko laguntza eskainiko dio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariari, urtero 25 harpidetza inguru susta-

zteaz gain 2008. urtean. Ondoren, «aurreko urte bukaeran bi aldean artean hitz egingo da hurrengo urteko egitasmo eta aurreikuspenaren baitan».

«Balantze positiboa»

Tolosa Herri Hedabideak E.M. ko kudeatzaileak, Jon Mujikak, hitzarmenaren inguruko balantze «positiboa» egin zuen. Bereziki, harpidetzak sustatzeko akordioa azpimarratu zuen, «autofinantziazioa indartzeko bidean, urrats txiki baina oso garrantzitsuak izenpetu dugu Amasa-Villabonako Udalarekin».

Maixabel Arrieta bere aldetik, lehenik eskerrak eman nahi izan zizkion TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariari, «Tolosaldean, eta gure herrian zehazki, euskaraz bizi ahal izateko pausak ematen ari gara guztion artean euskararen normalizazioa bultzatuz. Esparru honetan kokatu behar da baita ere, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK egiten duen lana, ondorioz, eskerrak eman eskualdean euskaraz irakurtzeko ohitura herritarren artean zabaltzeko egiten duen lanagatik».

Amasa-Villabonako alkateak, «euskararen normalizazioa HITZAREN jardueraren euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan sartu zuten, gertuko informazioari euskaraz lantzearen garrantzia aipatuaz; «gure ustez instituzioek, Udalak kasu honetan, euskalgintza eta gizarte osoarekin batera euskararen normalizazioaren aldeko prozesuan parte hartu behar dute, eta zer hobeto hori lortzeko, herritarren gertuko informazioa euskaraz ematea baino».

Uzturpe Ikastolak Kultur Astea aurkeztu du

Ibarra » Hilaren 21etik 27ra, hitzaldiak, haur jolasak, Galderagileak eta mendi martxa egongo dira herriko hainbat lekutan.

A. IMAZ

Uzturpe Ikastolak VIII. Kultur Astea aurkeztu du. Hilaren 21etik 27ra egingo dute Ibarra Kultur Etxean, Belabieta kiroldegian, herriko plazan eta Uzturpe Ikastola bertan.

Uzturpeko promoziorako batzordeko kideek, Kultur Astea prestatzen «lan asko» egin dutela aipatu dute. Horretaz gain, «familia asko eta mota askotagoak» direla aipatu dute, «hitzaldi hauekin guztiongana iritsi» nahi dutelarik, «parte-hartze handia izan dezagun».

Kultur Asteak irauten duten zazpi egunetan, Europa urruna argazki erakusketa egongo da zabalik Ibarra Kultur Etxean.



Iragan urtean bezala, aurtun ere haur jolasak euren txokoa izango dute. N.U.I.

» EGITARAUA

Urtarrilak 21, astelehena

■ **18:30.** Adimen emozionala-nerabeak gaia aztertuko da Benito Izagirre kultur etxean. Nerabeen gurasoei zuzendua egongo da eta Alex Muela, EHuko Hezkuntza eta Garapen ebolutiboko titularrak, izango da hizlaria.

Urtarrilak 22, asteartea

■ **15:30.** Herri izkutuak gaia aztertuko du Pello Basualdok, FENAMAT elkarte kideak, Uzturpe Ikastolan.

■ **18:30.** Hitzaldia: *Elikadura: anorexia eta bulimia*. LH eta DBHko gurasoei zuzendua egongo da eta Kultur Etxean egingo da. Javier Anton, AVAPSI Elkarte kidea izango da hizlaria.

Urtarrilak 23, asteazkena

■ **18:30.** Adimen emozionala-nerabeak gaia aztertuko da Benito Izagirre kultur etxean. Nerabeen gurasoei zuzendua egongo da eta Alex Muela izango da hizlaria.

Urtarrilak 24, osteguna

■ **19:00.** Kaputen kanta antzerkiola imaginarioa Benito Izagirre kultur etxean.

Urtarrilak 25, ostirala

■ **18:00.** Kaldereroak Ibarra plaza-zatik abiatuko dira.

Urtarrilak 26, larunbata

■ **Haur festa.** 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:00etara Belabieta Kiroldegian. Gaztelu puzgarriak, toboganak, euskaraokea, ... egongo dira. 0-12 urte bitartekiko haurrentzat zuzendua.

■ **18:00.** Txokolatada egingo da San Bartolome plazan.

Urtarrilak 27, igandea

■ **Mendi irteera.** Aia-Agorregi-Burdinola.

Aste guztian

■ **Argazki erakusketa.** Kultur etxean, Europa urruna.



Urjentziako bilkura egin zuen Adunako Udalak gaiaren berri eman eta mozioa onartzeko. I. GARCIA

Herritar ugarik babesa eman diote Udalari Leandro Galatasekin duen aferan

Aduna » Herritar batzuei egindako heriotz mehatxuak direla eta, kontrako epaia jaso du Leandro Galatasek.

IMANOL GARCIA

Adunako Udalak urjentziako osoko bilkura deitu zuen herenegun arratsaldean. Bertan Etxeberri baserriko Leandro Galatasekin izan dituen tirabiren berri eman eta mozio bat onartu zuten aho batez, 1,8 unitateko hirigintza proiektuarekin bat eginez eta «Leandro Galatasen heriotza mehatxuak jaso dituzten herritarrei elkartzasuna eta babesa» adieraziz. Herritar ugari izan zen bilkuran Udalari babesa emanez.

Onartutako mozioak zehatz-mehatz esaten duenez, hautetsi guztiak bat egiten dute 1,8 unitateko hirigintza proiektuarekin eta «burutzeko egin beharreko pausu guztiak egiteko konpromisoa berresten dugu». Aurretik esan bezala, «Leandro Galatasen heriotza mehatxuak jaso dituzten herritarrei» elkartzasuna eta babesa adierazi zieten. Herritar horiek Arantza Aburuza alkatea, Miren Aburuza zinegotzia eta hauen gurasoak izan dira. Horrez gain, mozioan esaten denez, zazpi haute-



Bilkura joandako herritarrek bat egin zuten mozioan esandakoarekin. I. GARCIA

tsiek konpromisoa hartu zuten atzo Tolosako epaitegian egingo den epaiketara agertzeko eta herritarrei gonbitea ere luzatu zieten bertara azaltzeko.

Osoko bilkuran zeuden herritarrek ere bat egin nahi izan zuten mozioarekin eta bilkuran bertan egindako proposamen bati jarraituz, sinadura bilketara deitu zuten mozioarekin bat egiteko. Datozen egunotan, mozioarekin bat egin nahi duten herritarrek aukera izango dute bere sinadura emateko udaletxean. Udaltzako kide guztiak herritarren babesa eskertu zuten.

Epaiketa

Arantza Aburuza alkatea azaldu duenez, «Galatas bere senide baten aburuzatarraren baserrira joan zen ostiral gauetan eta bere familiari heriotz mehatxuak egin zizkion». Aburuza familiak salaketa egin ondoren atzo egin zen epaiketara Tolosako epaitegietan.

Epaileak ez zuen delitu bezala hartu, huts egite bezala baizik. Leandro Galatasi 500 euroko isuna ezarri dio eta Aburuza familiako kideengatik, udaletxetik, zein Larditxiki baserritik hilabete batez 200 metrotera ez hurbiltzeko agindua eman dio. Aburuzatarrei

babesa ematera hainbat herritar, zinegotzi eta zinegotzi ohi joan ziren.

Desjabetzea

Udala herrigunea ingurutzen duen bidea egiten ari da. Azken zatia falta da eta zati hori egiteko Leandro Galatasen lurretatik 700 m² behar dira. Arantza Aburuza alkateak osoko bilkuran azaldu zuenez, «Galatasekin hitz egin du Udalak lur zati horren inguruan. Udalak 80.000 euro eskaini zizkion, baina ez zuen onartu eta 500.000 euro eskatu zituen». Galatasen eskaintza «onartezina» zela azaldu zuen Aburuzak. «Berean mantentzen zen eta azkenean desjabetze prozesua bideratu dugu».

Desjabetze prozesu horretan 40.000 euro inguruko diru kopurua ezarri da lur horren truke. Lasten Diputazioak eta adituek osatutako epaimahaiak erabakiko du prozesu horren gainean. Dagoeneko bidea egiteko enpresa eraikitzailea izendatuta dago eta aurreko astetik lanak hasteko baimena du.

Aburuza alkateak azken 20 urteetan Udalak Leandro Galatasekin izandako gatazkei buruz hitz egin zuen, egungo egoera «ez dela berria» azalduz. Herrigunean etxeak egin, frontoia eta eskola egin denean eta Galatasen lurrekin zerkusia izan duenean, gatazkek egon direla azaldu du. Adibide bezala, Galatas berak 1989ko osoko bilkura batean «zinegotzi guztiak tiro bana botako ziela esan eta aktak bere horretan jartzeko esan zuen». Udaltzako kideek Galatasen jarrera «onartezina» dela azaldu zuten.

Laburrak

Diafreo ikastaroa hasiko dute hilaren 21ean

ALKIZA » Diafreo ikastaroa, hau da, arnasketa lantzea eta luzatze arketak egitea, hasiko dute Alkizan. Hilaren 21ean ekingo diote. Ikastaroa astelehenean izango da, 09:15ean, Alkizako Kultur Etxean. Garraioarekin arazorik badu baten batek, udaletxera dei dezake eta bere bila joango dira. Gurutze lrazusta terapeuta izango da irakaslea.

Internetari buruzko ikastaroa egiteko aukera

ALKIZA » Kultur Etxean Interneteko ikastaroak antolatu dituzte. Besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: oinarriko prestakuntza, korreo elektronikoa, bankuko eragiketak... Bestalde, langile autonomoek ordenagailu berriak erosteko diru laguntza daudela jakinarazten dute. Izena emateko zerrendak herriko hiru tabernetan daude eta epea hilaren 21era arte dago zabalik. Hilaren 24ean, 20:00etan, bilera egingo dute KZgunean, taldeak osatu eta gaiak aukeratzeko.

Euskal dantzen inguruko ikastaroa antolatu dute

ALKIZA » Euskal dantza ikastaroa antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak. Muxikoak eta antzeko dantzak ikasiko dira. Asteartean izango da ikastaroa, 09:15ean hasita. Kultur Etxean emango da ikastaroa. Informazio gehiagorako, Aiztondoko bulegoetara dei daitete 943 69 39 30 zenbakira.

Dantza-sokako entsegua egingo dute bihar

ANOETA » Dantza-sokako entsegua egingo dute bihar Edurkako pabillioetan, 19:00etan. Azken txanpan sartu dira parte-hartzaileak, izan ere, hilaren 26an egingo dute ekitaldia, hau da, Galderagileen Egunean. Aurten aurrekulariak eta atzeskulariak Aitor Urkola, Manex Munduate, Estitxu Lasa eta Bakarne Garmendia izango dira. Biharko azken aurreko entsegua izango da. Azken entsegua ekitaldiaren bezperan izango da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialedea: 687 410 034. alegialedea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzailedea: 687 410 118. leitzailedea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alkiza.** Hilaren 26an Galdaragi-leen Eguna ospatuko dute herrian. Entseguak asteazkenean 20:30ean eta larunbatean 16:30ean izango dira Kultur Etxean.
- **Anoeta.** Hilaren 26an egingo den Dantza sokaren entseguak bihar eta 25ean izango dira Edurak pabilioian 19:00etan.
- **Berastegi.** Festa eta animalien bedeinkapena San Anton ermitan: 10:00etan meza eta ondoren, hamaitakoa.
- **Tolosa.** Tolosa CFren bazkideen urteko batzarra Kultur Etxean 19:30ean lehendabiziko deialdia, eta 20:00etan bigarren deialdia.
- **Tolosa.** Aizkardi mendi elkarteak Baztan aldera, Erratzu, Autza (1.306 m), Antzola, Argafieta (1.006 m) eta Aldude irteera antolatatu du iganderako. Izen-ematea, 943 694458 (Joxan) telefonon eta elkartearen bertan.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Pirinioetara irteera antolatatu du hilaren 18tik 20ra: ostiralean Lizara aterpetxera joan, igandean Bisaurin mendia igo (2.640 m) eta igandean Bernera mendilerroa igo ondoren itzuliko dira. Izen-ematea, 637830380 telefono zenbakian.

Tolosako Biltoki berriaren aldeko urte osorako zozketa jarri dute martxan; hilabetero sari deigarriak izango dira, hileroko itsuen lehen zozketarekin.

Sariak urte osorako

ERREDAKZIOA

Saria eskuratzeko esperantzak bultzatzen ditu jokalariak zozketetan parte hartzera. Eguberri partean nonahi topa daitezke zozketetan parte hartzeko txarteltxoak. Urtean zehar, ordea, zozketak murriztu egiten dira.

Bada, Tolosako Biltoki berriaren alde, urte osorako zozketa abiarazi dute. Hau da, hilabetero zozketa bat egingo dute, hileroko itsuen lehen zozketarekin jokatu dena. Azken hiru zifrak boletu honetan agertzen diren zenbakiren batekin bat etorritz gero, hilabete horri dagokion saria irabaziko du parte-hartzaileak. 15 euroko salneurria dute txartelek.

Urtarileko saria, banatuta

Urteko saria dagoeneko badu irabazlea. Amando Hernandezentzat izan baita. 300 euro irabazi ditu. Urtean zehar sari deigarriak izango dira, besteak beste, bidaiak, marisko sorta eta saskia, dirua, aforiak edota GPS-a.



Amando Hernandez saria jasotzen, Josune Agirrezabalaren eskutik. I. GARCIA

- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.
- **Tolosa.** Zaldunita Bezperako emakumeen danborradan parte hartu nahi dutenek 699 551765 telefono zenbakira deitu behar dute.
- **Tolosaldea.** Sahararako janari bilketa (dilitak, arroz, hegaluzea, azukrea eta konpresak) Tolosaldeko kultur etxeetan eta udaletxeetan.

Hitzaldiak

- **Albiztur.** Donostiako Michel Marmier doktoreak, bizkarrezurrean aditua, hitzaldia emango du Kultur Etxean 18:00etan bizkarrezurrean funtzioaz, minez eta prebentzioaz.
- **Amezketak.** Herri txikietatik paisaia krisian al dago? hitzaldia emango du Miren Askasibarrek erabilerari antzeko gelan 19:00etan.
- **Tolosa.** Emozioak eta adimen emozionala hitzaldia Orixe Institutuko e-gelan 19:00etan.

Zinema

- **Tolosa.** Tania Hermidaren *Que tan lejos* filma emango dute zineforumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Erakusketa

- **Tolosa.** Miriam Orkoien margolariaren lanak ikus daitezke Sorron koadro dendan (Korreo kalea)

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Josu Iñaki Sukuntza (Leitza). Gaur 10 urte betetzean zorianak zure familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

antzezlanerako
5 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

PA GAG NIMI

Yllana antzerki taldearen eskutik

urtarrilak 18 ostirala, 20:30ean
Tolosako Leidorren



4 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

BRUESA GBC
Union Baloncesto La Palma

OSTIRALA
URTARRILAK **18-21:00**
ILLUNBE